Dante euskaraz, Jainko Antzerkia

Itzulpenak Sarrera jakingarri batean azaldu zigun Santi Onaindiak itzulpen lan horren nondik norakoa, gure hizkuntzak, euskarak, behar zuen doitzeko ahalegina aipatuz

JON KORTAZAR

Ondo datorkigu Dante Alighieri poeta nagusiaren heriotzaren urteurrena haren lana euskaraz nola eman den ikusteko eta haren ondarea nola jaso dugun begiratzeko.

Bitan itzuli da Dante Alighieri maisuaren 'Komedia' osoa euskarara; bitan baina bakarra balitz legez, eta azaltzera noa bitan bananduriko bat horrekin gertatutakoa.

1985ean Aita Santi Onaindiak (1909-1996) eman zuen euskaraz lehen aldiz obra osoa, 'Jainko Antzerkia' izenburupean, Bizkaiko Aldundiaren laguntza jaso ondoren. Nahi duenak eskuragarri dauka Interneten. Nahikoa da google bilatzailean «Aita Onaindia Jainko Antzerkia» idaztea liburua bere osotasunean agertzeko.

Bizkaieraz eman zuen lana Santi Onaindiak bere betiko ohiturari jarraituz. «Gure bizi aldiaren erdira, basarte ilun batean aurkitu nintzan, zidor zuzenetik aldegin nebalako. Ai, ta nekezko jat egiaz oian naspil a zein itxi ta latz zan esatea! Gogoratuz bakarrik izu-dardar jarten naz barriro! Eriotz ikara baizen mingotza!»: Horrela eman zion hasiera itzulpenari.

Sarrera jakingarri batean azaldu zigun Santi Onaindiak itzulpen lan horren nondik norakoa, gure hizkuntzak, euskarak, behar zuen doitzeko ahalegina aipatuz, eta lanaren garrantzia azpimarratuz: «Gure izkuntzak bear dau olako zerbait, gure literatura apain, jori ta oparotsuago egin dagigun. Munduko literatura aundi guztietara itzulia da. Emen guk be euskeraz!».

Aita Onandiaren itzulpenen historiaren azken aroan kokatu beharko genuke Danteren itzulpen hori. Garai horretan, 1981 eta 1985 urte bitartean, Santa Teresa, Homero, Goetheren lanak itzuli zituen eta Danteren hau inprentara eraman. Guztiak euskara indartzeko, oparo egiteko eta duintzeko ahaleginak dira. Garai horretarako, ordea, beste haize batzuek jo zuten euskal itzulpengintzaren eremua.

Horregatik 2001 eta 2003 urteen artean Joxan Agirre Begiristainek Danteren lanaren bigarren itzulpena eskaini zuen, baina bere





Danteren eskuizkribu bat eta Borgesek Argentinan erositako 'La Divina Comedia' liburua. E. C.

iturria ez zen Danteren obra, Onaindiaren itzulpena baino, eta, zentzu horretan, itzulpen interdialektal gisa, euskalkien arteko itzulpen gisa hartu dezakegu.

Horra nola berez itzulpen bakarra zena bikoiztu egin zen euskal irakurleontzat.

Infernuko ateak

'Jainko Antzerkia' osorik ez, baina lehen atalaren itzulpenak usuago agertu dira gure artean. Ez da oso ezaguna kontua baina, Dante Alighieriren 'Jainko Antzerkia'ren lehen atalaren lehen itzulpena XIX. mendean egin zuen Emmanuel Intxauspe kalonjeak (1815-1902). Intxauspek itzulpen lanak egin zituen Bonaparte printzearentzako, eta urte haietan ezaguna egin zen 'Jinkouac guiconareki eguin patoac, edo eguiazco religionia' (Baiona, 1851) lan erlijiosoaren egile gisa, zortzi argitalpen izan baitzituen doctrina lan horrek. Danteren lana Dogson ikerlariaren laguntzaz 1892an argitaratu zuen. Ordurako Intxauspek ez zuen lan egiten printzearekin, eta ziurrenik gogoak eman ziolako eman zuen euskarara Florentziako poetaren lana. Gure egilea bitan izan zen Italian, 1867an lehenik eta Kontzilioa zela eta ondoren, 1869an. Euskal literaturaren eremuan zabaldua zen Intxauspek 'Infernua' atal osoa itzuli zuela, baina ez da horrela. Parisen argitaratu zen liburuxkak 8 orrialde besterik ez ditu, eta bere izenburu bihurrian garbi uzten du 'Infernua' atalaren lehen kantua besterik ez zuela plazaratu: 'Dante Neurthizleariaren Ifernia. Lehen leloa, Zuberoko euskaralat itzulia Inchauspe, aphezak'.

> Aita Onandiaren itzulpenen historiaren azken aroan kokatu behar dugu Dante, Santa Teresa, Homero eta Goetheren lanen garaian

Ahaztuxea izan dugun itzulpen horren ondoren, Gabriel Arestik (1933-1975) berriz eman zuen 'Infernua' atalaren lehen kantuaren euskal aldakia. Arestik 50eko hamarkadan bidali zion, dirudienez, itzulpen hori Pierre Lafitteri, 'Herria' aldizkariko arduran zenez gero. Lafittek, ordea, ohar bat erantsiz, Guatemalan 'Euzko Gogoa' literatur aldizkaria argitaratzen zuen Jokin Zaitegi idazleari bidali zion, eta haren paperen artean aurkitu zuten Bilboko poetaren lana. Onaindiaren lanarekin alderatuz, bestelakoa da Gabriel Arestik eman zuen aldakia, bestelako hizkuntza modua: «Gure bizitzaren bide erdian, oihan ilun baten aurkitu nintzen, eta han zuzeneko bidea ez nuen ikusten. Ene, pentsamentuan bildurra berriztatzen duen baso basati lakar eta gogor hau zein zen esatea gauza gaitza da benetan. Hain mingotsa denez gero, heriotza bera dirudi».

Ez zen, ordea, Onaindiaren iritzitik askorik aldentzen Arestik zerabilen itzulpen asmoa. Haren adiskide Juan San Martinek dioskun legez, poetak Kixoteren itzulpena egin nahi zuen «bere ustez munduko literatur obra nagusiak euskaratzea hizkuntzaren osperako aberasgarri zelako». Cervantesen lanaren zortzi kapitulu itzuli zituen, eta oso gogoko zituen egileen beste hainbat lan ere bai.

Lauaxetak 'Agur Beatrizi'

'Jainko Antzerkia' alde batera uzten badugu, Esteban Urkiaga 'Lauaxeta' dugu Danteren lana euskaratu zuen beste poeta bat. Olerki solte bat eman zigun euskaraz Mungiako olerkariak, 'Beatricen agurra', 'Euzkadi' egunkarian 1930eko martxoan agertu zuena.

Aita Estefaniaren metodoari jarraiki, poesia euskaraz ematea zen poesia egiten ikasteko biderik ziurrena. Danteren poema hori jesuita garaian egindako poeten itzulpenen antologia bateko eredua litzateke. Jakina da bai Lauaxetak eta bai Jokin Zaitegik, eskolakideek, nork bere antologia eman zuela ezagutzera.

'Beatricen agurra' poemaren kasuan, badira zertzelada bi aipatu ditzakegunak. Lehenik, bere hizkera poetikoa ari da fintzen Lauaxeta, hiztegi sinbolista baten jabe egiten. Horrela 'suspiro' itzultzeko 'inka' berezia darabil. Eta, bigarrenik, maitasun idealizatuaren gaia erakutsi digu, gerora behin eta berriro aukeratuko duena bere liburuetan.

Bidezidor horiek ibili eta gero, garbi dago: ez da Dante oso egile itzulia gure artean, han eta hemen ageri dira euskaraz jantzitako haren lanak. Besterik ezean, dagoenak egin beharko digu estalpe!